# GazteKaldia
## Gazteria Bizkaia ereiten

**Urriaren 25ean, Euskaldunan (Bilbo),**
*Gune Irekiko topagunea (Open Space)*

Ei, gazte! Zelan bizi dozu gaur egungo zurrunbiloa?
Zeintzuk dira gazteok astindu behar doguzan gaiak, orain eta hemen? Etxebizitza? Sexua? Lokalak? Lana? Dantza? Kirola? Konsumoak? Internet? Jaia? Euskerea? Ingurumena? Gizarte gaiak?
Zeintzuk dira gure beharrizanak, desioak, aukerak eta erronkak?

Galdera horreei eta beste askori erantzuten saiatuteko, alkar ezagutzeko eta ondo pasetako gune ireki batera gonbidatu gura zaitugu. Baldintza bakarra, 18 eta 30 urte bitarteko bizkaitar euskalduna izatea.

Beste gazte batzuekaz etorkizunari begiratzeko ideiak trukatu eta aberastu gura dozuz? Konponbide barritzaileak eta emonkorrak bilatzeko eta erabagietan parte hartzeko gogoa daukazu?

**Non?**
Euskalduna Jauregiko areto berrian. Kristalezko Espazio Irekian
**Noz?**
Urriaren 25ean, zapatuan. 09:30etik 18:30era
**Zelan?**
GUNE IREKIKO metodoa erabiliko dogu, **sano modu parte-hartzaile, harmoniatsu, sortzaile, sinple eta eraginkorrean...**
- **Gura dozuzan gaiak** eta jardunak proposatu ahal izango dozuz.
- **90´ko guneak** eukiko doguz, proposatutakoak lantzeko.
- Txoko bakotxean, **idatzizko txostena** osotuko dogu, eta ikusgai eukiko dogu eten barik.

Amaitzean, txosten guztiak K.Bizkaia.net webgunean argitaratuko doguz.
**Zertarako?**
Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak zure eretxi, desio eta erronkak ezagutu gura dauz, eskaintza hobea emoteko. GazteKaldiko proposamen guztiak Bizkaiko politika publikoen kudeaketan ardurea daukien instituzinoei bideratuko deutseguz, eta gazteok behar dogunaren gainean eragin ahal izango dogu. Entzun gaiezan, entzun daiguzan!

**Eta, gainera...**
Zuzeneko musikea Dj bategaz, "Dando La Brasa"-k prestautako janari galaktikoa, Graffic-Recording, eta zuk zeuk gehitzeko prest daukazun guztia!

Animau zaitez eta emon izena hemen

Debalde!

**info+:**
k.bizkaia.net/kabian
kabian@bizkaia.net   Tel.: 666 42 78 97
Facebook: Kgunea
Twitter: @kgunea #kabian1
g+: Kgunea

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia